

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 185/2019 Foru Agindua, uztailaren 17koa, Urizaharrako hirigune historikoaren Barne Eraberritzeko Plan Bereziaren lehen xedapen aldaketaren Ingurumen Txosten Estrategikoa ematen duena

“Urizaharrako hirigune historikoaren Barne Eraberritzeko Plan Bereziaren lehen xedapen aldaketa” izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura erraztua gauzatu behar da. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du prozedura hori.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak xedapen aldaketa horren inguruko ingurumen agiri estrategikoa jaso du, Urizaharrako Udalak igorria eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, araututako gutxieneko edukia jasota, bai eta hirigintza agiria ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako agiriak jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunen artean, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2019ko uztailaren 11n eman zuten Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (19/29 espedientea).

1. Xedapen aldaketaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Barne Eraberritzeko Plan Bereziaren xedapen aldaketaren ezaugarrien laburpena:


Urizaharrako Barne Eraberritzeko Plan Berezia 1995eko abenduan hasi zen indarrean eta, beraz, 20 urtetik gorako indarraldia dauka. Hala, udalaren iritziz, plan berezia aldatu behar da 2007an onartu zen Urizaharrako Harresiaren Plan Zuzentzaile eta beste lege aldaketa batzuetara (esaterako, Urizaharrako hirigunea barne eraberritzeko eremu gisa izendatzen duen 1999ko abenduaren 27ko agindua) egokitzeko.

Oraingo honetan, hainbat aldaketa proposatzen dira:

1.1.1. BEPB aldatzeko proposamenak, Harresiaren Plan Zuzentzailearen arabera egokitzekoak.


— I. aldaketa: 1131, 95, 94, 93, 92 katastro lurzatietan eta 91 lurzatiaren zati batean aurreikusi diren ataripeak kentzea; lurzati horietan, BEPBk atzeraemangunea ezarri du beheko solairuan.

Gaur egun, 1131 lurzati finkaturik dago eta, bertan, sustapen publikoko eraikin batzuk ageri dira, atariperik gabe. Beste alde batetik, 94 eta 95 lurzatietan, beheko solairuko atzeraemangunea egin zaion eraikin bakarra altxatu da. BEPBk dakarren eskakizun bat, hau da, solairuaren bolumenean atzeraemangunea egitea, ataripe pribatua eraikitze asmoz, kentzea proposatzen da. Izan ere, eraikitako ataripeei erabilera publikoa esleituz gero, hasierako interesa galduko litzateke, hots, ataripeak aterpe eta babesleku gisa erabiltzea. Esan nahi da, ataripeak karre-rape pribatu baten osagaiak izaki, eraikuntzaren esanahia galtzen da eta tradiziozko hirigintza bilbea inolako premiarik izan gabe desitxuratzen da; hori dela eta, ondorioztatu behar dugu atzeraemangunearen ezarpenak ez duela hiriko eremua hobetzen eta, gainera, beharrik gabeko karga bilakatzen da harresiari atxikitako orubeen jabeentzat.




– II. aldeketa: Bigarren aldeketa xedea da BEPBK hirigune historikoaren mendebaldeko eremuan zehaztu duen zerrenda jarraitua apurtuko lukeen igarobidea zabaltzea, antzinako Berganzoko atea berreskuratzeko. Aldaketak eragindako eremuak 93 katastro lurzatia baino ez du ukitzen.

Aldaketak ez dauka eraginik lurzorua sailkatzeko araubidean; bai, ordea, erabileran, bizitegiko erabilera esleitu beharrean, eremu publikoko erabilerakoa izatea proposatzen baita. Ondare-Babesa deritzon enpresak egindako ikerketa historikoaren arabera, hirigunearen mendebaldean, Berganzoko atea izenekoa izan zen eta hori komunikazio bide biziki garrantzitsua zela harresiaren kanpoaldeko eta barrualdeko esparruen artean. Aipaturiko atea zehatz-mehatz non zegoen ez dakigun arren, tradiziozko hiri egiturari eusteko asmoa dago, lau puntu kardinaletan igarobideak utzita. Igarobide horiek elementu garrantzitsuak dira hirigunea, Adarbeco pasealekua eta inguruko bazterrak lotzeko.




– III. aldaketa: 1129 lurzatia espazio libre moduan uztea proposatzen da, izaterik ez baitauka eraikin bat bertan altxatzeko.

BEPB antolatzeko planoan, lehendik eraiki den zerrenda bat finkatzen da eta, muturrean, 1129 lurzatia dago. 1129 lurzatiaren azalera txikia eta izaera publikokoa dela aintzat harturik, azken lurzatia espazio libre gisa uztea proposatzen da, Adarbeko pasealekuak eta Concejo kaleak bat egiten duten iparraldeko elkargunea errematatzeko.




– IV. aldaketa: 29 lurzatia espazio libre gisa uztea proposatzen da.

BEPB antolatzeko planoan proposatzen denez, lurzati horretan 27 eta 28 lurzatiaren eraikitako bolumenaren antzekoa eraikiko litzateke. Hala eta guztiz ere, BEPBk eraikuntza horretan ezarritako lerroakurak harresiaren jatorrizko trazadura zeharkatuko luke, Ondare-Babesa enpresak egindako ikerlan arkeologikoen arabera. Hortaz, lurzati horretako eraikuntzari dagokionez, BEPBk lurzati horretan ezartzen duen lerroakura aldatzea proposatzen da. Gainera, topografiaren ikuspegitik, ez da leku egokia bertan eraikitzeko eta, hortaz, bidezkoena litzateke lurzati horretan ez eraikitzea eta espazio publikoa zabaltzea.



– V. aldaketa: 105 katastro lurzatiaren paisaiaren kalitatea handitzea proposatzen da.

Urizaharrako Barne Eraberritzeko Plan Bereziaren xedea bazen etxebizitzaren sustapen publikoa egitea lurzati horretan eta, era berean, hori baliatzea erabilera publikoko espazio librearen antolamendua egokitzeko Hegoaldeko atearen inguruan. BEPB indarrean egon den 20 urtetik gorako aldirian, ez da abiatu lehen aipatu dugun sustapen publikoa eta eragindako eremuaren gaineko azterlana ikusita, ondorioztatu daiteke 105 lurzatiaren lehendik dauden eraikinek ez dutela eragotziko etorkizunean kalitate handiko espazio librea gozatu ahal izatea Hegoaldeko atearen inguruan; horiek horrela, proposatzen dugu BEPBren aldaketak lurzatiaren egun dauden bolumenak finkatzea ahalbidetu dezan. Bertan dauden eraikinen jabeak kezkatuak azaldu dira mantentze lanik ezin dutelako egin eta, hartara, karga kenduta, eremu horretako hiri irudia hobetzen ahal izango dute aurrerantzean. Era berean, 76, 77, 78 eta 82 lurzatiaren dagoen euste hormatik kanpo geratzen den lurzatiaren zati bat espazio publiko gisa aintzatetsi eta Espazio Libreen / Berdeguneen Sistema Orokorrean txerta dadin proposatzen dugu.



1.1.2. BEPB aldatzeko proposamenak, BEPBk berak ezarritako helburuak betetzeari dagozkionak.

Birgaitu gabe geratzen diren eraikinen fitxak jasotzen dituen agiria eguneratuko da, Urizaharrako higiezinaren ondarearen gau egungo errealitate fisikora egokitzeko, bai eta espazio libreen egungo hirigintza baldintzetara egokitzeko ere.

1.1.3. BEPB aldatzeko proposamenak, hirigintza kudeaketari dagozkionak:

Hainbat jarduketa proposatzen dira:

– BEPBn jasotzen diren desjabetzearen ziozko unitateen kudeaketari dagozkion alderdiak berriro pentsatzea.

– Jarduketa plana idaztea, egin asmo diren lanak gauzatzeko hurrenkera zehazteko eta, bestetik, egokitzat jotzen den jarduketa sistema ezartzeko. Antolamendua gauzatzeko epeak eta lehentasunak ezarriko ditu, eta eraikuntza jarduketak, urbanizatzekoak eta berriro urbanizatzekoak jasoko ditu.

– Azterketa ekonomikoa egitea, urbanizatzeko jarduketaren bideragarritasun ekonomikoa ebaluatzeko (publikoena nahiz pribatuena).

– Azaleko prospekzio arkeologikoa egitea BEPBk kontuan hartzen duen eremu osoan, gaurdaino bildu diren datu guztiak idatziz eta irudiz jasota.

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa.

Peñacerrada-Urizaharrako udalerrria Arabako lurraldearen hegoaldean dago, Araba Erdialdea deritzon eremu funtzionalean, Arabako Mendialdea eskualdearen barruan. Urizaharra udalerriko hiriburua dugu eta bizkar edo muino baten gainean dago; bertatik, inguruko basoak eta laborantza lur zabalak ikusten dira, baita Urizaharratik hurbil dagoen Toloñoko mendilerroa. Azken eremua Natura 2000 Sarearen baitako "Arabako hegoaldeko mendilerroak" izena duen naturagune babestua osatzen du. Urizaharrako hirigune historikoaren esparruak balio historiko eta arkitektoniko handia dauka. Ildo horretan, 1996ko maiatzaren 6an, Urizaharrako harresien eremu arkeologikoaren deklarazioa argitaratu zen ALHAOn. Era berean, Birgaitze Integratuko Eremutzat deklaratu zen multzo osoa, 1999ko abenduaren 27ko Agindua dela bide. Agindu hori Euskal Herriko Aldizkari Ofizialaren 16. zenbakian argitaratu zen, 2000ko urtarrilaren 25ean. Ondoko irudian, BEPBren xedapen aldaketaren eremu orokorra ageri da:



1.3. Aztertutako aukerak.

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, bi aukera kontuan hartu eta aztertu dira:

– "0" aukera (ez da hautatu): Egungo egoerari eutsiko litzaioke eta, beraz, BEPBren antolamendua ez litzaioke Harresiaren Plan Zuzentzaileak ezarritakoari egokituko. Gertaera horrek, ingurumen agiri estrategikoan esaten denez, "lehen mailako elementu historiko eta arkeologikoaren balioa aitortzeko aukera galtzea" ekarriko luke.

– "1" aukera (hautatu dena): Honako agiri honetan proposatzen den BEPBren xedapen aldaketaren helbururik behinena BEPB bera Urizaharrako Harresiaren Plan Zuzentzaileak jasotzen dituen zehaztapen nagusietara egokitzea da. Ingurumen agiri estrategikoan esaten denez, hauexek proposatzen dira:

.– BEPB Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen eta irisgarritasun araudiaren arabera egokitzea.

.– Harresiaren Plan Zuzentzailearen proposamenak BEPBn islatzea eta legez jasotzea.

2. Kontsulta aldiaren laburpena

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2019ko urtarrilaren 15ean eman zion hasiera eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko aldiari, prozedura arautuari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Euskal Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Urizaharrako Udala	
Urizaharreko Administrazio Batzarra	
Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 19/29 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza ondoko oharrak egin ditu: “Hirigune historikoa birgaitzeko plan berezia aldatzeko eremua Urizaharrako hiriguneari dagokio. Antolamenduak hiri lurzoru finkatu gisa kalifikatu du eta, beraz, ez dio hiri lurzoru ez denari eragiten eta ez dauka eraginik nekazaritza eta abeltzaintzako jardueran. Ez du eraginik, ezta ere, Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan inskribatutako landa bideetan”

- URA - Uraren Euskal Agentziak 2019ko urtarrilaren 30ean bidali zuen lehenengo txostena. Han, honako hau adierazten da: “zuen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaio, erreferentziako gaiari buruzko txostena eman dezan, komenigarritzat jotzen badu, 21/2013 Legeak ezarritakoarekin bat etorritz (21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen ebaluazioarena)”

2019ko apirilaren 10ean, URA – Uraren Euskal Agentziak bigarren txostena egin zuen. Bertan, xedapen aldaketaren laburpena egin ondotik, ohar batzuk eman zituen eta, horietan, ondokoak nabarmendu behar ditugu. Hala eta guztiz ere, URAK emandako ondorioak aintzat hartuta, geuk ondorioztatu behar dugu oker interpretatu dutela BEPBren xedapen aldaketak jasotzen duela etxebizitza berrien sustapena jasotzen dela proposaturiko jarduketan artean:

Urak gainezko egiteko arriskuari dagokionez, esaten da Plan Bezeriaren xedapen aldaketaren eremua muino batean dagoela eta, inguruko ibilguekiko distantzia kontuan hartuta, “Uraren Agentziak baiesten du Urizaharrako Erdi Aroko hiriguneak ez daukala inolako arriskurik aparteko uhaldien aurrean”.

Hornidurari gagozkiola: “Planaren sustatzaileak zenbatespena egin beharko du, ahalik eta zenbatespenik zehatzena, plan berriari aurreikusten diren etxebizitzaren inguruko. Era berean, beharrezkoa da lehen aldaketaren dokumentazioan, Agentzia honek txostena egin dezan, izapidetza hurrengo aldirian, eskari inplizitu berrien zenbatespena jasotzea, bai eta horniduraren erakunde kudeatzailearen adostasuna txostena ere, lehendik erabilgarri dauden sistemak beharrezko berriei erantzuteko gaitasuna dutela justifikatzeko.

Saneamenduari gagozkiola: “Plan Bereziak testu arauemaile orokorrean jaso beharko du etxebizitza berri guztiek saneamendua moldatu beharko dutela hiriguneko saneamendu sistema orokorrari lotuta, betiere ur hondakinen isuririk sortu gabe jabari publiko hidraulikoan; ildo horretan, hala beharrezkoa balitz, sistemaren edukiera moldatzeko eskatu ahalko da”.

Azkenik, bidalitako txostenak dio Plan Bereziaren aldaketari erantsitako dokumentazioan aurkeztu egin behar direla oraingo nahiz etorkizuneko hornidura eta saneamendu sareen eskemak.

• Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bidalitako txostenak hauxe dio: “proposaturako aldaketek ez dute inolako eragin arkeologikorik, lurzatiaren erabilera aldatzen delako edo eraikuntzako baldintza batzuk kentzen direlako (fatxaden atzeraemangunea). Hala eta guztiz ere, txostenak gogorarazten du Urizaharrako hirigune historikoaren barruko eremu arkeologikoaren mugen barruan proiektatzen den obra orotan, udal lizentzia jaso baino lehen, nahitaezko txosten arkeologikoa aurkeztu behar dela (Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen 45.5 artikulua)”. Ildo horretan, ingurumen agiri estrategikoaren 7. atalean jasota dagoen testua aldatzea proposatzen da (ingurumen ondorio aurreikusgarriak: Kultura Ondarea) eta 9. Atalean jasotakoa (neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena: kultura ondareari lotutako neurriak).

• Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak proposamenaren laburpena egin eta ondoko ondorioak eman ditu: “Proposaturiko aldaketak Urizaharrako hirigune historikoaren barrukoak direnez, bat geroz ingurumen agirian jasotakoekin, hau da, natura ondareak ez duela eragin esanguratsurik jasango”. Dena dela, zuzendaritza horrek bidalitako txostenaren adierazten denez, Urizaharrako ezaugarriak aintzat harturik (harresitutako hirigunea, antzinako eraikinak dituen) eta, natura ondarearen ikuspegitik, balio handiko leku batean dagoela aintzat harturik, baliteke kiropteroen babeslekuak agertzea aztergai dabilgun eremuan eta, beraz, kiropteroei ahalik eta kalterik txikiena eragiteko, komeniko litzateke BEPBren aldaketak ondoko neurriak jaso ditzan ordenantzan, eraikinak eraberritzeari lotuta:

– “Zuraren tratamendu intsektizidatan, organokloratuak edo organofosforatuak darabiltzaten produktuen orde, biodegradatzen errazak diren produktuak erabili beharko dira.

– Kiropteroen hazlekuak aurkituz gero, eraikinak teilaberritu eta eraberritu beharko dira hazkuntza alditik (ekaina, uztaila eta abuztua) at, eta tratamendu intsektizidak apiriletik irailera arte doan alditik kanpo (bi hilabete horiek ere kontuan hartuta) eman beharko dira.

• IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak azaldu duenez, “Erakunde honetan ez dago jasota aipaturiko kokapenean lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egon denik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan”. Era berean, hauxe dio: “kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez”.

• Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak aldaketaren justifikazioa, proposamenaren laburpen zehatza eta eraikuntzako jarduketaren arauak egin ditu. Horiez gain, ingurumen agirian jasotzen den kultura ondarearen edukia aztertu du:

– “Ingurumen Agiriari dagokionez, nabarmentzekoa da ez dela ageri hirigintza agiriaren 5. atalean jorratutako ingurumen ondorioak aztertzeko beharra, ondorio horiek eragina baitute kultura ondareari atxikitako funtsezko elementu batean, hots, harresian”.

– “Gure iritziz, ingurumen azterketaren eraginpeko alderdietan, beharrezkoa da BEPBn ezarritako jarduera arkeologikoen protokoloa betetzeko kontrola txertatzea zerrendan, harresiari datzekion orube eta eraikinetan egiten jarduketei dagokienez. Era berean, hirigunearen eremu arkeologikoa kultura ondasun izendatzen duen dekretuak ezarritako babes araubidea betetzeko beharra jaso behar da, zorupean eragina duten jarduketa guztiei dagokienez, hirigune historikoaren eremu arkeologikoaren esparru osoan”. Azkenik, txostenean adierazi da ondare arkeologikoaren arloko eskumena daukan Arabako Foru Aldundiaren organo egokiaren alde aurretiko baimena beharko dela bi jarduketa horiek gauzatzeko.

• Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak hiru irizpen jaso ditu txostenean:

– Gure aburuz, proposaturiko aldaketan jasotzen den irizpideetako batek, harresiko horma ataletan, atal bakoitzaren jatorri historikoaren arabera baoak zabaltzeari buruzkoak, alegia, oso emaitza desberdinak izan ditzake fatxada hainbat garaitako harresi zatiek osaturiko eraikinen kasuan. Horren haritik, hauxe proposatzen da: esandako eraikinen fatxadetan, banan-banan zehaztea bao berriak zein aldetan ireki daitezkeen”.

– Eraikuntzako jarduketak gauzatzeko irizpideak Labein enpresak 2007. urtean egindako azterlanaren emaitzetan oinarritzen dira. Orobat, informazio grafikoa eguneratu eta azken urteetan izan diren aldaketak jasotzea proposatzen da.

– “5.1.1 ataleko laburpen taulan (atal horretan arautzen dira bao berriak irekitzeko jarduketak) ez da zehaztapenik agertzen 87, 88 eta 89 katastro lurzatietan dauden eraikinentzat”.

3. BEPBren xedapen aldaketaren ingurumen eraginaren deskribapena

Ingurumen agiri estrategikoaren 7. atalean, “Ingurumen ondorio aurreikusgarrien azterketa” delakoan, jasotzen denez, Urizaharrako BEPBren xedapen aldaketak ez du zertan ingurumen ondorio esanguratsurik ekarri aldaketa gauzatu den baldintzetan. Aldaketa bera gauzatzen denean bakarrik sor litezke ondorio esanguratsuak, hau da, xedapen aldaketari lotutako jarduketak gauzatzen direnean.

Ingurumenaren ikuspegitik, 29 eta 1129 lurzatiak eta 76, 77, 78 eta 82 lurzati zati bat espazio libre gisa egokitzea onuragarria da, betiere gaur egun 29 lurzati dauden tamaina handiko hostozabalen bi aleei eusten eta horiek zaintzen baldin badira.

Beste alde batetik, adierazi beharra dago BEPBren aldaketak jasotzen dituen jarduketek zuzeneko eragina izan dezaketela kultura ondarearen gainean, orokorrean, eta arkeologia ondarearen eta historia nahiz arkitektura ondarearen gainean, bereziki, aldaketak kultura balio handiko esparruetan jardutea dakarrelako, agiri honen hainbat ataletan azaldu den bezala. Ildo horretan, ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren izapidetzeari lotutako kontsulta aldian jaso diren alegazioekin bat etorriz, arkeologia ondarearen eta historia nahiz arkitektura ondarearen arloetan eskumena duten Arabako Foru Aldundiaren organo eskudunen aurretiazko baimen egokiak eskuratu beharko dira.

Honako xedapen aldaketa hau onartuz gero, gauzatzen diren eraispen, mantentze eta eraikuntza lan guztiak fauna basatiari ahalik eta eragin txikiena sorrarazita egin behar dira, batez ere, kiropteroei ahalik eta eragin txikiena sorrarazita, animalia horiek oso kalteberak baitira Urizaharrakoa bezalako hirigune historikoen esparruetan. Gainera, lanen ondorioz sortzen diren hondakinak era desegokian kudeatzeak ekar litezkeen ondorio kaltegarriak zeharo saihestu behar dira.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzatzaileak

Ingurumen agiri estrategikoaren 9. atalean, "Neurri Babesle eta Zuzentzaileen Proposamena" izenekoan, ageri diren ingurumen integrazioko neurriez gain, ondoko baldintzak ezarri dira Urizaharrako hirigune historikoaren BEPBren xedapen aldaketari atxikitako hirigintza agiriaren araudian txertatzeko:

– Urizaharrako BEPBren xedapen aldaketaren esparruko eraikinen mantentze lanak egiten direnean, antzinako eraikinetan egon daitezkeen kiropteroak babesteko helburuz, ingurumen integrazioko neurri hauek garatuko dira:

– "Zuraren tratamendu intsektizidatan, organokloratuak edo organofosforatuak darabiltzaten produktuen ordez, biodegradatzen errazak diren produktuak erabili beharko dira.

– Kiropteroen hazlekuak aurkituz gero, eraikinak teilaberritu eta eraberritu beharko dira hazkuntza alditik (ekaina, uztaila eta abuztua) at, eta tratamendu intsektizidak apiriletik irailera arte doan alditik kanpo (bi hilabete horiek ere kontuan hartuta) eman beharko dira.

– Plan Bereziaren xedapen aldaketa garatzeko jarduerak eragin litzaketen eraispen eta eraikuntza lanak gauzatzeko aldian, ontzi estankoak, gordailu iragazgaitzak edo bestelako sistemak jarri beharko dira lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko, eta debekatuta dago erabilitakoak isurtzea. Kudeatzaile baimendu bati emango zaizkio halakoak. Debeku horrek balio du lanen ondorioz sortzen diren hormigoizko hondakin, eraikuntzako materialen edo lurren hondakin eta abarrentzat; horiek guztiak baimendutako hondakindegira batera eramango dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraispen lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Urizaharrako hirigune historikoaren Barne Eraberritzeko Plan Bereziaren (BEPB) lehen xedapen aldaketaren" IngurumenTxosten Estrategikoa egitea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen txosten estrategikoa hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 17a

Ingurumen eta Hirigintza diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako jarduneko zuzendaria
M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE